

1/25

irizpena

Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-
heziketako ikastetxe integratuak arautzen
dituen

dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2025eko martxoaren 5a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 1/25



I.- AURREKARIAK

2025eko otsailaren 12an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Hezkuntza Sailaren idazkia jaso zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe integratuak arautzen dituen dekretuaren proiektuari buruzko txostena eskatuz.

Arauaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe integratuak arautzea Lanbide Heziketaren Antolamendu eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen esparruan. Batez ere aurreikuspenak sartzen ditu berariazko egiturak defini daitezzen, batetik, ikastetxeetan antolamendu-eredu adimendunari egokitze aldera eta, bestetik, industria-iraultza berriak planteatzen dituen erronkei erantzuteko gaitasuna izate aldera.

Batzordearen Batzar Nagusiko kide guztiei berehala bidali zitzaizen dokumentuaren kopia bana, proposamenak eta iritzia eman zitzaten eta horiek, aldi berean, zegokion Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araubidean ezarritakoarekin bat etorritik.

2025eko otsailaren 27an, Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietan oinarrituta, irizpen-proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkurak martxoaren 5ean aztertzeko, eta azkenak gehiengoz onartu zuen

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektuak azalpen-atala eta xedapen-atala ditu. 8 kapitulutan antolatzen da, eta guztira 53 artikulua ageri dira, xedapen gehigarri, xedapen iragankor eta xedapen indargabetzaile banaz nahiz hiru azken xedapenez gain.

Azalpen-atala

Aipatzen duenaren arabera, Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoak eta Lanbide Heziketako Sistemaren Antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuak aldatu egin dute lanbide-heziketako ikastetxe integratuen arau-esparrua, eta beharrezkoa da ikastetxe horien figura berriro arautzea.

Halaber, adierazten da apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe integratuak arautu zituela alderdi orokorretan, eta dekretu honek dekretu hura indargabetuko duela.

Era berean, azaldutakoari jarraikiz, Lanbide Heziketaren 6. Euskal Planaren (2022-2025) misioa da giza garapen jasangarri eta inklusibo baterantz aurrera egitea, pertsonen talentua bultzatuz, ingurune produktibo, teknologiko, digital eta adimendunago batetik eratorritako erronkei erantzun dieten ikaskuntza-eredu aurreratuak txertatuz eta EAEko Lanbide Heziketa pertsonen beren enplegarritasuna hobetzen eta EAEko enpresei lehiakortasun handiago baterantz aurrera egiten lagunduko dien eraldaketa- eta berrikuntza-eragile gisa sendotuz, betiere kontuan izanik inor ezin dela atzean geratu, eta Basque Country 2030 Agendaren ildotik garapen jasangarria indartuz eta sustatuz. Gainera, besteak beste, lanbide-heziketako ikastetxe integratuak 5.0 lanbide-heziketa adimenduneko ikastetxe integratuen eredu berri batera eraldatzea aurreikusten du, etengabe ikasi eta berrikuntzan aritzeko gaitasunarekin, etorkizunera begiratzeko ikuspegiarekin eta lankidetzaren sareetan proiektuak garatuz, talde balioaniztunek osatutako zeharkako ezagutza-arloetan integratutako irakasleak tarteko.

Aldi berean, lanbide-heziketako ikastetxe integratuek eraldaketa digital jasagarria sustatuko dute, ikaskuntza-metodologia aurreratuak ezarriko dituzte, eta ekintzailtza eta lanbide-heziketara aplikatutako ikerketa eta berrikuntza bultzatuko dituzte.

Azalpen-atalak honako hau ere aipatzen du: helburu horiek lortzeko lanbide-heziketako ikastetxe integratuek antolamenduaren esparruan autonomia eta malgutasun handia izango dituztela, bai eta prestakuntza-eskaintza programatzeko moldaeraztasuna eta lan-munduko prestakuntza-premia aldakorrei erantzuteko gaitasun azkarra ere, horiek guztiak inguruneke teknologia- eta gizarte-ereldaketen ondorioz. Horretarako, araudi bat behar dute, zerbitzuak eraginkortasunez, autonomoki, malgutasunez eta kalitatez ematea bermatuko duena.

Azalpen-atala amaitzeko, adierazten da lanbide-heziketako ikastetxe integratuek, euren helburuak behar bezala lortze aldera, EAEko gizarte-eragilerik garrantzitsuenen parte-hartzea izango dutela.

Xedapen-atala

I. kapituluak alderdi orokorrak garatzen ditu. Hala, lanbide-heziketako ikastetxe integratu (aurrerantzean, LHII) baten xedea eta deskribapena definitzen ditu, bai eta haren mota ere, titulartasunaren, antolaketa-egituraren, prestakuntza-egituraren eta prestakuntza-eskaintzaren modalitatearen arabera ere. Gainera, LHII baten lanbide-heziketako eskaintzak, xedeak eta eginkizunak ezartzen ditu.

II. kapituluak ikastetxe batek LHII izateko bete behar dituen baldintzak eta sortzeko jarraitu behar duen prozesua azaltzen dira. Halaber, ikastetxe pribatu-itunpeko bati LHII bihurtzeko baimena emateko prozedura eta hura indargabetzeko arrazoiak ezartzen ditu. Horrez gain, LHII bat nola erregistratuko den xedatzen du.

III. kapituluak LHIIen autonomia ezartzen du, antolakuntzan, pedagogian, kudeaketa ekonomikoan eta langileen arloan. Era berean, ikastetxeko Proiektu Estrategikoa eta Ikastetxeko Lan Exekutiboa diseinatzean jorratu behar diren gaiak ere ezartzen ditu.

IV. kapituluak Lanbide-heziketako ikastetxe (aurrerantzean, LHI) publiko eta pribatu itunpeko integratuen gobernu-organoak xedatzen dira. Partaidetza- eta koordinazio-organoak ere definitzen dira. Gainera, LHI publiko integratuen pertsona bakarreko gobernu-organoak izendatzeko eta horiek kargutik kentzeko prozedura definitzen du. LHI publiko integratuen zuzendari, ikasketa-buru, idazkari eta administratzailearen eginkizunak ere ezartzen ditu.

Halaber, Kontseilu Sozialaren definizioa eta hari esleitutako eginkizunak jorratzen ditu, bai eta haren osaera ere, bai LHI publiko integratuen kasuan, bai LHI pribatu itunpeko integratuen kasuan.

IV. kapituluak ezartzen dira, era berean, LHI publiko integratuetako koordinazio-batzorde teknikoaren osaera eta arduradunen eginkizunak, LHIIetako irakasleen klaustroari esleitutako eginkizunak, LHIIetako ezagutza-arloak osatzen dituztenak, eraldaketa digitaleko taldearen eraketa eta helburua, eta haren arduradunari esleitutako eginkizunak, Lanbide Informazio eta Orientazio Sailaren printzipioak eta eginkizunak eta osaera, eta talentua ikasi eta garatzeko taldearen eraketa eta bertako arduradunari esleitutako eginkizunak.

V. kapituluak LHIIetako egitura espezifiko berriak jorratzen ditu, LHII batean ezarpena baimentzeko eskumenak nork dituen ezartzen du, eta hura osatzen duten figurak xedatzen ditu.

VI. kapituluak LHIIetako irakasleen gaia lantzen du, eta, hala, irakaskuntzan aritzeko betekizunak, informazio eta orientazio profesionaleko eginkizunak, eta gaitasun profesionalak (lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza ez-formaleko beste bide batzuen bidez eskuratutakoak) ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurako partaidetza ezartzen ditu.

VII. kapituluak adierazten du urrutiko LHIIa ikaskuntza birtual eta digitalizatuen LHIIa dela, eta ikastetxe horren xede eta eginkizun espezifikoak ezartzen dituela, eta ikastetxe horretako irakasleei eta langileei egiten zaie erreferentzia.

Azkenik, **VIII. kapituluak** zuzendaritza-funtzioaren prestakuntza, ebaluazio eta aitortzari buruzko gaiak jorratzen ditu, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren gaineko eskumena duen sailaren titulartasuneko LHI publiko integratuetan. Bertan jorratzen dira zuzendaritza-eginkizuna betetzeko prestakuntza-programak eta prestakuntza iraunkorreko programak, LHIIetan zuzendaritza, kudeaketa, antolakuntza eta lidergoaren eremuetan ezagutzak eguneratzeko.

VIII. kapitulu honek zuzendarien eta zuzendaritza-taldeko gainerako kideen zuzendaritza-eginkizuna ebaluatu eta aitortzen du, bai eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko LHIIen zuzendaritzen esku dauden babes-neurriak ere.

Halaber, zuzendariaren kargua betetzeko ordainsari-osagarri espezifikoaren zati bat finkatzeko bete beharreko baldintzak eta aipatu kargua bete den aldien araberako zenbatekoak ezartzen ditu.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Lanbide-heziketako legediak azken urteetan berrikuntza sakonak izan ditu arauen ikuspegitik, bai Estatuan (organikoa eta oinarritzkoa), bai Autonomia Erkidegoan, araudi-esparrua gizarte- eta produkzio-ingurunearen erronketara eta eskakizunetara moldatzeko, teknologia berriek bultzatuta, etengabe eraldatzen ari baita.

Moldatze-premia hori LHIIei buruzko Erkidegoaren 2014ko araudian ere aldarrikatzen da, beraz, egokitzat jotzen dugu aurrean dugun ekimen legegilea. Dena den, gaiaren gainean zenbait gogoeta egin nahi ditugu.

Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko 3/2022 Lege Organikoa indarrean sartu zenean, arauen esparruan agertoki berri bat ireki zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko testuingurura egokitu behar da. Hala eta guztiz ere, lege hau Euskadin txertatzeko eta EAeko lanbide-heziketaren eredia definitzeko dekretua egiteari lehentasuna eman ordez, lanbide-heziketako ikastetxe integratuak arautzearen arloan aurrerapausoak ematea aukeratu da, ikuspegi holistikoago batetik lanbide-heziketako ikastetxe integratu horien zeregina sisteman sartzeko Erkidegoko araudi-esparru orokorra izan gabe. Araudi-esparru orokor hori ez egiteak zenbait arazo sor ditzake gerora.

Euskadiko lanbide-heziketa Estatuan erreferentzia izan da, eta oraindik hala dirau. Produkzio-ehunarekin lotura sendoa izan du, eta berrikuntza nahiz prestakuntza dualaren aldeko apustu goiztiarra egin da, eta apustu horri eutsi nahi diogu, baina, xede horrez, uste dugu lanbide-heziketaren sistemak zenbait erronkari aurre egin behar diola premiaz.

Besteak beste, hona hemen erronka horiek:

- 1. Lanbide-heziketa produkzio-sistemaren premietara egokitzeko** aurrerapausoak ematen jarraitzea.

2. Dibertsitateari arreta berezia jartzea.

Lanbide-heziketa oinarrizko integrazio-faktorea da; beraz, lanbide-heziketako ikastetxeetan dibertsitateari arreta berezia jarri behar zaio, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak benetan gizarteratzeko oztopoak deuseztatuz eta, beste neurri batzuen artean, material erabilerrazak eta laguntza egokiak emanez. Hala, oso interesgarria da langile espezializatuak eta Lanbide Informazio eta Orientazio Sailean ikasleen ongizate eta babeserako koordinatzailearen figura izatea (28. art.).

3. Genero-arrakala murriztea.

Prestakuntza-ibilbide zehatzak hautatzean argi dago berdintasunaren errealitatea urrun gelditzen dela, eta, gainera, esparru horretan urrats gutxi egin direla. Emakume gutxiago daude espezialitate zientifiko-teknologikoetan eta gizonek batez ere tradizioz maskulinizatuta dauden adarretara jotzen dute, beren presentzia beste arlo batzuetan gutxienekoa izanik.

Diagnostikoaren arabera, arinki izan arren, emakume gehiago daude batxilergoan eta unibertsitatean (2021-22 ikasturtean, unibertsitateko ikasleen % 54,3), bai eta gizon gehiago ere lanbide-heziketan (% 65,6 lanbide-heziketako gradu ertainean eta % 63,8 goi-graduan). Datu horiek 2024ko Euskadiko EGABren Memoria Sozioekonomikoan ageri dira.

Nahiz eta erakundeek, lanbide-heziketako ikastetxeek eta unibertsitateek STEM ikasketetan (zientzietako, teknologikoko, ingeniartzako eta matematiketako karrerak ingelesezko akronimoan) emakumeen presentzia sustatzearen aldeko saiakerak egin dituzten, ikasketa horietan % 12 baino ez dira ikasle emakumeak; bien bitartean, gainerako adarretan ehunekoa % 60koa da (EUSTATen datuak). Horrenbestez, ezinbestekoa da arrakala desagertzen lagunduko duten neurriak hartzea.

Ildo horri jarraikiz, ikastetxeen esperientzia eta beren ekintza-aukerak aprobetxatu beharko liriateke genero-arrakala murrizte aldera egokitzat jotzen diren ekimenak diseinatu eta gauzatzeko, genero-arrakala oso kaltegarria baita emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko. Hortaz, ekintzak garatzea ahalbidetuko lieketen baliabideak izan beharko lituzkete.

4. Zeharkako ezagutza-arloak eta talde balioaniztunak sortzea sistema hobetzen laguntzeko.

Zehazki lanbide-heziketako ikastetxe integratuaren arauketari erreparatzen badiogu, zenbait gai nabarmendu nahi ditugu, kezkarriak iruditzen zaizkigulakoan:

1. 4.1 artikuluko ikastetxeen sailkapena eta definizioa.

- ✓ *Titulartasunari dagokionez, honako hau dio: “Publikoak eta pribatu itunpekoak izan daitezke”. Baieztapenaren arabera, titulartasuna bestelako ezaugarri bat da, ez, ordea, ezaugarri bereizgarri bat. II. kapituluaren 9. artikuluan, berriz, argi eta garbi zehazten da honako hau: “Lanbide-heziketako ikastetxe publiko zein pribatu integratuak inskribatuko dira, batetik, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailean dagoen ikastetxeen erregistroan, eta, bestetik, enpleguaren arloan eskumena duen sailean dagoen ikastetxe akreditatuen erregistroan. Ikastetxe bakoitzak IFZ bat izango du, eta, halaber, kode bat izango du bakoitzak inskribatu den erregistroan”.*

- ✓ Zioen azalpenak adierazten duen ideia partekatzen dugu, hau da, lanbide-heziketako ikastetxe integratuek “(...) *antolamenduaren esparruan autonomia eta malgutasun handia izango dituztela, bai eta prestakuntza-eskaintza programatzeko moldaeraztasuna eta lan-munduko prestakuntza-premia aldakorrei erantzuteko gaitasun azkarra ere, horiek guztiak inguruneko teknologia- eta gizarte-eraldaketen ondorioz. Horretarako, araudi bat behar dute, zerbitzuak eraginkortasunez, autonomoki, malgutasunez eta kalitatez ematea bermatuko duena*”. Horregatik, hain zuzen ere, zalantzak sortzen zaizkigu egitura eta prestakuntza-eskaintza dela eta, ikastetxeak sailkatzen eta definitzen direnean; azken finean, “errealitatea zatitzen” baitu. Zurruntasun-elementua izan daiteke, eta desegokia da etorkizunean (baita etorkizun hurbilean ere) ikastetxeen beraien funtzionamendurako.
 - ✓ 5.0 lanbide-heziketa *adimenduneko* ikastetxe integratuei buruz, bere tratamendu bereizgarriak zalantzak sortzen dizkigula azaldu nahi dugu. Funtzio publikoak adierazten du “*ikastetxeek tipologia aldatzen dutenean, ez direla bitarteko materialak eta giza baliabideak aldatuko*”, baina dekretu proiektuaren artikuluetan 5.0 ikastetxe adimendun integratuentzat beste kudeaketa- eta antolaketa-eredu bat dago (4.6 art.), eta halaberrez baliabideak (materialak eta giza esparrukoak) eskatzen dituzten espazioak eta zerbitzuak sartzea aurrez ikusten du.
2. **Hizkuntza-politika** behar bezala garatzea, lanbidean ikasleek euskaraz hitz egin eta arreta jaso dezaketela bermatzeko.
 3. Prestakuntza-eskerako **espazioak izatea eta/edo egokitzea**. Lanbide-heziketaren sistema indartu nahi dugun neurrian eta matrikulazioak gora egiten ari direla kontuan hartuta, espazioak egokitu behar ditugu, prestakuntza-eskea gero eta handiagoa delako.
 4. **Lanbide-heziketako ikastetxe publiko integratuen pertsona bakarreko gobernu-organoak izendatzeko eta horiek kargutik kentzeko prozedura** (16. art.).

Gure iritziz, kasu honetan eskatzen denaren bidetik, prozesuak berdintasunaren, publikotasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren arauak betetzen dituela bermatzeko, zehatz-mehatz idaztea proposatzen dugu, zuzendaritza-funtzioa eskuratzeari buruzko otsailaren 28ko 29/2023 Dekretuak unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan zuzendariak hautatzeko deskribatutakoaren ildotik.
 5. **Gaitasunak ziurtatzea**.

Gaitasunak ziurtatzea hasieratik, hain zuzen ere, plangintzatik aurrez ikusi behar da. Orduak zehaztu behar dira, eta egiteko langileak nahiz baliabideak esleitzea ezinbestekoa da.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

5. artikulua. Helburuak

Testuaren f) apartatua honako modu honetan geldituko litzateke “*batez ere industria-inguruneetan*” ezabatu ondoren:

f) Lanbide-heziketan dihardutenen artean honako hauek sustatzea: ekimen-sena eta beren lanbideari lotutako enpresa-proiektu berriei -banakakoei zein kolektiboiei- ekiteko gaitasuna estrategikotzat jotzen diren sektoreetan, enpresak sortzea lagundu nahi denez gero.

IV. KAPITULUA. LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUAK: GOBERNU-, PARTAIDETZA- ETA KOORDINAZIO-ORGANOAK

16. artikulua. Lanbide-heziketako ikastetxe publiko integratuen pertsona bakarreko gobernu-organoak izendatzea eta horiek kargutik kentzea.

1. puntua aldatzea proposatzen da azpimarratutakoa kenduz eta letra lodiz nabarmendutakoa gehituz:

1.– Titulartasun publikoko ikastetxe integratuen zuzendaritza izendapen askearen bidez hornituko da, merezimendu-, **berdintasun**-, gaitasun- eta publizitate-printzipioen arabera eta ikastetxeko kide anitzeko organoei kontsulta egin ondoren, indarrean dagoen araudia errespetatuz.

Hala, honelaxe geldituko litzateke testua:

1.– Titulartasun publikoko ikastetxe integratuen zuzendaritza hornituko da, merezimendu-, berdintasun-, gaitasun- eta publizitate-printzipioen arabera eta ikastetxeko kide anitzeko organoei kontsulta egin ondoren, indarrean dagoen araudia errespetatuz.

Bestalde, 6. puntuan, lanbide-heziketako ikastetxeetan pertsona bakarreko gobernu-organoak kargutik kentzeko ustezkoen artean, erretiroa sartzea proposatzen dugu. Hortaz, testua honako modu honetan idatzita geldituko litzateke:

a) Izendapen-epea amaitzen denean, edo, hala badagokio, epe horren luzapenaren amaieran.

b) Lanbide-heziketako ikastetxe integratua lanbide-heziketako ikastetxe ez-integratu edo lanbide-heziketa arautzen duen indarreko araudian aurreikusitako beste ikastetxe-mota bihurtzean.

c) Lanbide-heziketako sailburuordeak onartutako uko arrazoituan.

d) Gerora sortutako ezintasun fisiko edo psikikoan.

e) Erretiratzean.

f) Lanbide-heziketako sailburuordearen indargabetze arrazoituan, bere ekimenez, karguaren berezko eginkizunak larriki urratzeagatik.

22. artikulua. Kontseilu Soziala

Batetik, ikusten dugu kasu batzuetan Kontseilu Sozialean kideen banaketa betetzea zaila izan daitekeela, hain zuzen, ikastetxeak 600 ikasle baino gutxiago dituenetan gehienez sei kide izatearena. Gure ustez eragozpen horiek zuzen daitezke ikasleen kopuruaren arabera ikastetxeen sailkapena ezabatuz (oinarrizko legediak ez du agintzen).

Bestetik, 2 c) puntuan Kontseilu Sozialean gizarte-eragileen ordezkariak aipatzen da honako modu honetan: “(...) Erakunde horietakoren batek ordezkari izendatzen ez badu, ordezkariari uko egiten bazaio edo behin eta berriz huts egiten bada Kontseilu Sozialaren bileretara, hutsune hori beteko da garrantzitsuenak diren gainerako erakundeetako kideekin, betiere, ordezkariak-mailaren arabera hurrenkerari jarraikiz”.

Gure iritziz, hutsunea betetzeko huts egiten den bilera-kopurua zehaztu beharko litzateke. “Behin eta berriz” terminoa anbigua iruditzen zaigu. Horrez gain, Kontseiluaren erabakiak garrantzitsuak direnez, komenigarria izan daiteke bileren gutxieneko kopurua definitzea eta egiteko gutxieneko quoruma zehaztea.

VII. KAPITULUA. ZUZENDARITZA-FUNTZIOAREN PRESTAKUNTZA, EBALUAZIOA ETA AITORTZA HEZKUNTZA-SISTEMAKO LANBIDE-HEZIKETAREN GAINEKO ESKUMENA DUEN SAILAREN TITULARTASUNEN LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE PUBLIKO INTEGRATUETAN

51. artikulua. Zuzendaritza-funtzioaren aitortzea lanbide-heziketako ikastetxe integratuetan.

2. puntua aldatzea proposatzen dugu, letra lodiz idatzitakoa gehitzeko:

2.– Zuzendaritza-taldeko kide guztiei eta egitura espezifikoak dituzten ikastetxe integratuak arloko zuzendariari jarduna dagokion lanpostuaren edo irakaskuntza-eginkizunaren berariazko osagarriekin ordaindu behar zaie, lanbide-heziketaren eskumena duen sailak zehazten dituen zenbatekoen arabera, eta, besteak beste, ikastetxearen dimentsio-irizpidea **eta hezkuntza-behar espezifikoak dituzten ikasleen zailtasun berezia** kontuan hartuta.

V.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz egokia da *Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe integratuak arautzen dituen Dekretuaren proiektua* izapidetzea, kontsulta organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2025eko martxoaren 5an

OE Presidentea

Idazkari Nagusia

Javier Muñecas Herreras

Izaskun Astondoa Sarria